

ce de una biblioteca de este tipo. Dicha biblioteca estaría abierta al público estudioso.

La existencia en Oñate de un centro de estas características serviría, sin duda, para despertar entre los hijos del pueblo vocaciones, abrir rutas y enseñar el modo de trabajar en este campo a más de un elemento joven. La Academia tendría en cuenta el dar preferencia, en igualdad de condiciones, a hijos del pueblo, a la hora de elegir colaboradores o ayudantes para algunos de estos trabajos.

Naturalmente, la puesta en marcha de todos estos trabajos traerá consigo ulteriores desarrollos y actividades que hoy por hoy no es posible especificar con más detalle.

30 - IV - 76

JOKIN ZAITEGI

Gizon batek euskeraren alde bere bizitza osoa erre baldin badu, gizon hori Zaitegi jauna izan da. Horregatik, gaurko omenaldia, bere jaioterriak eta euskaltzaleek egiten dioten gorazarre hau, alegia, ongi irabazi eta merezia du, inork izatekotan, Zaitegi jaunak.

Gaurko gazte askok beharbada ez dakite zuzen nor den edo zer egin zuen Zaitegik. Eta hunekin ez dut esan nahi hori ez dakitelako errudun direnik. Bakoitza bere garaiko semea izan ohi da, eta beste denbora bateko kontuak nekez jakiten ditu. Ez dakitenek jakin dezaten ere beharrezkoa zen, bai, jaialdi hau eratzea.

Gerra ondoko urte latz haietan, euskeraz ezer egiterik ez zegoenean, gau beltzaren erdian, izar bat agertu zen, nun eta Guatemala-n. "Euzko Gogoa" aldizkaria esan nahi dut. Eta hara bildu ziren euskeraren alde zerbait egin nahiez zebiltzanak.

Ekonomi aldetik begiratuaz, dirua erre kara botatzea bezala izan zen aldizkari hura han eta orduan ateratzea. Bai. Diruaren atzetik ibili balitz, gure Zaitegik egin dituen guztiak erokeriatzat, kijotekeriatzat jo beharko genituzke. Zorionean Arrasate hunek, ekonomi aurrerapenen eta komentzien senti-

dua hain zoli eta bizkor duen herri hunek, bestelako semeak ere badaki ematen.

Neurri handi batean Zaitegiren eraginari zor zaio oraingo euskal berpizte hau. Gero hor ditugu olerki lanak, exegesi lanak eta Greziako pentsalari handien obrak euskeraz jartzen eta argitaratzen beregain hartu duen lan eskerga... Eta guzti hori berak bakarrik, inoren laguntasunik gabe, herbesteko ogi garratza jaten zuen bitartean. Benetan horrelako seme erraldoiak Arrasatek bakarrik eman ditzake, Garibai, Bañez eta Severo Altuberen herriak, alajaña!

Zaitegi adiskidea: Uste dut beharturik nagoela Euskaltzaindiaren izenean eskerrak zuri ematera eta aitortza hau egitera. Bakoitzari berea zaio zor, eta zurekin Euskal Herriak duen zorra nolabait aitortzeko beharrezkoa zen gaurko egun hau.

Zaitegi adiskidea: hau zeuk jakingo duzu nik baino hobeki, noski, baina iruditzen zait bizitza ez dela gozoegia izan zurekin. Guruzbide latza izan duzula. Arantzak loreak baino ugariago. Saminak, nekeak eta atsekabeak maizago bildu dituzula, atseginak baino. Baina horrek ez du zure zuzentasuna hautsi. Beharbada findu eta sendotu egin du. Eta zu baitan harritu nauena eta miretsi dudana izan da idealari leial egoten agertu duzun zintzotasun hori, eta sinestean beti erakutsi duzun ermotasuna. Gizaki aldetik ere, dohain eder hoiengatik, ispilu eta eredu zaitugu egungo Euskal Herriko gizaldi berriarentzat.

Guzti hunengatik, bada, neure izenean eta guztion izenean: Eskerrik asko!

Fr. Luis Villasante
Arrasaten, 1976, abenduak 19